

AZKEN BATEAN

LOURDES OÑEDERRA



n a r r a t i b a •

erein

AZKEN BATEAN

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2025eko urrian

Azalaren diseinua eta maketazioa:

Erein

Azaleko argazkia:

Francisco Gómez. *San Sebastián, 1957*

© Archivo Paco Gómez / Fundación Foto Colectania

© Lourdes Oñederra

© EREIN. Donostia 2025

ISBN: 978-84-1093-031-5

L. G.: D 775-2025

EREIN Argitaletxea.

Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Gertu

Zubillaga industrialdea 9

20560 Oñati

T 943 78 33 09

gertugrafika@gmail.com

www.gertu.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Lourdes Oñederra

AZKEN BATEAN

Azken batean berdin dio
egindako ahaleginak
eta jasandako beldurrek
goizero jaiki izanak
bukatutako amodioek
galdutako adiskidetasunek
egokitutako familiak
arrakasta eta sariak
ikusitako lekuek
dantzatutako doinuek
kantatutako abestiek
ikasitako lezioek
ahaztutako eginbeharrek

emandako minak
hartutako oinazeak
horrek ez dio berdin
horrek bakarrik

Eta urtaroak jira eta bira
Eta pottoka margotuak gora eta behera
Gatibu gara denboraren tiobiboan
Ezin gara itzuli, atzera begiratu baino ez
Nondik gatozen
Eta segi bira eta bira eta bira
Zirkuluaren jokoan

(Joni Mitchell, Zirkuluaren jokoa,
Arroilako andereak diskotik, 1970)

*And the seasons they go round and round
And the painted ponies go up and down
We're captive on the carousel of time
We can't return, we can only look behind
From where we came
And go round and round and round
In the circle game*

(Joni Mitchell, The Circle Game,
Ladies of the Canyon diskotik, 1970)



GOIZEKO SEIETAKO BERRIETAN entzun du Ixa hil dela. Irratian ez dute Ixa esan, izen osoa baizik. Ixa Elisak bere baitan erabiltzen duen goitizen modukoa da, denek Kepa deitzea nahi izan zuelako hark momentu batetik aurrera, baina Elisak gaztetako Pedro erabiltzeari ez ziolako utzi nahi. Protesta bezala. Edo kostatu egiten zitzaiolako. Ez du penarik sentitu, baina ezin izan da berriro erdi-lokartu eta lozorroan gelditu, goizegi esnatzen denean ohi duen bezala. Erabat esnatu da, sentituz mundua leku hobea izango dela, bera behintzat hobeto dagoela koinatua hilda. Ez du gehiago ikusiko gizon hori, gaztetan poemaka atzetik ibili zitzaion hura, gero alabari min eman ziona. Egia esan, ez daki seguru, susmoa da, baina gauza jakinen sendotasuna duten susmo horietakoa. Alabak ez zion esan. Ez zuen bestelako erakuslerik ere, baina gertatu zirenak eta ez zirenak oso ondo egokitzen zaizkio gauzen bertsio horri. Ez du frogarik behar. Edo ez da inoiz eskatzera ausartu.

Zure senarra ez zen ondo portatu gure alabarekin, esan behar izan zion noizbait koinatari. Noizbait, baina noiz. Esan

izan balio, Elene ez zen agian senarraz hain harro agertuko, bere senar intelektual ospetsuaz, horrenbeste egin duenaz herri honen alde, hainbeste eman dionaz hizkuntzari eta aberriari. Edo bai, harroago agian, ez baitzion sinetsi nahi izango ezer txarrik senarraz. Ez behintzat agerian. Ez dio esan eta orain damu da, baina ez du une egokia aurkitu. Ez da aukerarik egon. Jakin ere ez daki zer gertatu zen. Ziurrenik ez zuen jakin nahi izan. Alabak ere ez zion laguntzarik eskatu eta eman ere ez gerora, jakin nahi izan duenean.

Hain zegoen orduan beragandik urruti alaba, karrera kanpoan bukatzea erabaki zuen hogeitaz urteko neska indartsu hura, beti lanpetuta zebilena ikastaroz ikastaro, mintegiz mintegi. Gustura bizi zela ikusteaz pozten zen, alabaren lorpenak bereak zirelakoan pixka bat behintzat. Harro ikusten zuen besoetan izandako nexka hura emakume bihurtzen, bere gorputzetik sortutako ume txikitxo hura munduan barrena irabazle. Saiatu arren, memoriak ez dio oroitzapen batzuen erlazio kronologikoa erakusten. Elisa ez da gauza Elixabeteren jaiotzaren eta Ixaren txango berezi haren arteko erlazioa ordenatzeko. Gogoan du koinataren bisita eta koinata urduri zegoela. Gauza biak urte berean izan ziren baina zerbaitegatik batzuetan iruditzen zaio bata bestea baino lehenago izan zela, beste batzuetan alderantziz, beste batzuetan biak batera gertatu zirela. Ezin da gogoratu —eta askotan saiatu izan da— bera haurdunaldiaren azkenetan zegoen Elene urduri etxera etorri zenean, edo haur jaioberria etxean ote zeukaten ordurako. Oso ondo gogoratzen da koinataren jaka zuriaz. Udazkenaren lehen egunean jaio zen bere txikia, Elixabete. Epel zegoen eguraldia,

oraindik hondartzara joaten ziren ia egunero. Arkansaseko Little Rock herrian eskola publikoa itxi zuten, Gobernuak behartu zituenean ikasle beltzak zuriekin batera ikas zezaten. Senarrak irakurtzen zizkion Estatu Batuetako berriak egunkaririk edo etxean jasotzen zuten *Vida Nueva* aldizkari kristautik bestela, gurtzen zuen Kennedy familiarenak bereziki eta Martin Luther King beltzen gidari bakezalearenak. Elixabetez erditzera zihoalako, klinikara eramateko, Little Rockeko eskolaz irakurtzen ari zitzaiona eten behar izan zuen. Balkoi irekiaren ondoko besaulki berdean zegoen eserita Joxean. Nola gelditzen diren gauza batzuk memorian eta beste batzuk, ez. Inoiz bururatu izan zaio, Elixabetez erditzen ari zenean, Ixa eta haren lagunak herri hau odolez beteko zuen erakunde bat ari zirela abiatzen. Erditzen. Indarkeria historiaren emagina dela esan omen zuen Marxek. Edo antzeko zerbait. Zein patetikoak gizakiak, zein gizajo, zein gajo, ezta? Eta hain kaltegarri. Bere nexka hamar urte betetzera zihoala egin zuten lehen hilketa, polizia gazte bat. Gero beste zortziehun eta berrogeita hamabost. Poliziak, irakasleak, kazetariak, militarrek, sukaldariak, politikariak, etxeko andreak, tabernariak, enpresariak, langileak, saltzaileak, erosleak, umeak eta helduak, gizon eta emakumeak. Aberria askatzeko.

Nork jasan orain koinata alargunaren berrikeriak senarraz, senarraren loriak eta bera nola maite izan duen. Maitatuko zuen gainera. Ez du dudarik egiten Elisak horretaz, baina azkura arin baten antzeko zerbait ernatzen zaio gogoratzean Ixak beti berari erakusten zion gogoaz, mahaian zeharreko begiradez, sukaldean bularra ukitu zioneko hartaz.

Mundua leku hobeagoa izango da gizaseme harro bat gutxiagorekin. Ez du beste ezer sentitu nahi orain, baina poza estali egiten dio zerbaitek.

Logelatik atera eta, sukaldean gosaltzera sartu aurretik, komunera joan da poliki. Ohetik jaiki berritan gorputza astun gertatzen zaio, mugimenduak zail. Zutitzea. Oinek zorua zapaldu eta hurrengo pausorako indarra ateratzea. Saiatzen da halere baldartasuna disimulatzen, norbait begira balu bezala. Ez du errukirik nahi. Ez du bere buruaz errukitu nahi. Duintasunari eutsi nahi dio edo horrela esplikatzen dio ahalegina bere buruari. Kamisoiak eta batak ere horregatik erosten ditu Kale Nagusiko Irulean, dotoreak direlako. Bainugelatik ateratzean telefonoaren ondoko paper-bloke txikia hartu eta sukaldeko mahai gainera eraman du. Lehen orrialdean hasitako erosketen zerrenda kendu, mahai gainean utzi eta hurrengo orrian idazten hasten da mekanikoki:

Elixabeteri berria

Eleneri deitu

Pelukerian ordua

Gero *Elixabeteri berriaren* inguruan biribil bat marraztu du eta gezi bat jarri du zerrendaren azkenera. Koinatarekin hitz egin ondoren deituko dio Elixabeteri agian. Bai, hobe. Orain goizegi da gainera Ameriketara deitzeko edo beranduegi. Ohean egongo da edo oherako bidean, goiz oheratzeko ohi-tura duela esan zion behin. Mezu bat ere idatzi liezaioke, bai idatzi liezaioke. Ile-apaindegira deitzea minutu bateko kontua

izango da, baina oraindik itxita dago. Koinatari deitzeko ere goizegi da. Garai batean, ia egunero elkartzen zirenean, deituko zion, edozein izanik ere ordua, baina, Joxean joan zenetik, ez dira hainbeste egoten eta ez diote elkarri edozein ordutan deitzen. Ez, gosaldu eta gero deituko dio. Seme-alabekin egongo da. Bilobekin. Lagunduko diote hiletak eta gainerakoak antolatzen. Ez da zalaparta txikia egongo etxe horretan gaur.

Gurina atera du hozkailutik, kafe-makina piztu du eta kapsula sartu dagokion txuloan. Esnea jarri du berotzen mikrouhinean, bitartean mahaia prestatu du. Katilu eta plater politak, harizko eskuzapia. Alargundu zenean bere buruari agindutakoa betetzen du zintzo. Otorduetarako mahaia poliki jartzen du, txukun, polita, gonbidatu batekin gosaldu, bazkaldu eta afalduko balu bezala. Edo senarra oraindik bizirik balego bezala.

Gosaldu ondoren, komunera joan da berriz, baina duxara sartu aurretik osteria irten da: irakurtzeko betaurrekoak mesanotxetik hartu, telefono zenbakia bilatu eta ile-apaindegira deitu. Ez dute hartzen, ez zuten irekiko oraindik. Balkoiko loreak eta txoritxoentzako koipe bolatxoak nola dauden ikustera joan da. Dotore egon nahi du hiletetan, ez harengatik, haren kontra baizik.

AFALDU ETA GERO, bederatziak aldera, Elixabetek bere blogean kopiatu du Emmylou Harrisen ahotsean lanetik etxera aurikularretatik entzun duen kantaren letra, Internetez berretsi ondoren hitzak Matraca Bergenak direla. Biba Emmylou, biba Matraca

gehitzeko gogoia sentitu du, baina ez du halakorik egin. Inbidia ematen dio emozioak sarean gordin kaleratzen dituen jendeak, baina auzo-lotsa ere bai. Kantaren izenburua eransten du azkenik, *Back when we were beautiful*.

Hemeretzi edo hogeit hamar urte izango zituen osaba Keparekin Ondarretako hondartzan topo egin zuen egun lainotuan. Osabak amaren gaztetako edertasunaz hitz egin zion. Nola garai hartako mutil donostiar ia guztiak zeuden Elisaz, bere amaz, bere ama izango zenaz, maiteminduta. Elixabetek erabakia zuen ordurako ez zuela ikasketekin jarraitu nahi osaba irakastera zetorren unibertsitatean. Izebak amari kontratatu zutelako notizia eman zion egunean bertan hartu zuen asmoa Donostian ikasi ezin zitekeen zerbaitetan espezializatzeke. Esan zion osabari hemen ez zegoela berak aukeratu zuena, itzulpengintza nahi zuela ikasi, Granadara joango zela udazkenean ikasketa horiek egitera. Hasi berria zen han diplomatura hori. Pena Euskal Herritik alde egin beharra, zioen osabak. Bai, baietz. Noizbait izango zutela unibertsitate nazionala, ikasketa guztiak eskaini ahal izango zituen, Francoren zigorra zela unibertsitate publikorik ez izatea, *provincias traidoras* eta bla-bla-bla. Elixabetek ez zuen bera irakasle izan nahi, ez zitzaion asko axola gainerakoa. Ez zuen, egia esan, Donostiatik aldentzeko gogo berezirik. Gainera, gurasoen etxetik irteteak ziurgabetasuna sortzen zion, deserosotasuna. Ez zuen momentu horretan halakoez pentsatzen ordea. Francoren zigorrarenaz ardura adierazten saiatu zen, hitz laburrak tartekatuz osabaren hizketaldi sutuan, ahapeka ia. Ez zion gehiegi begiratu nahi, ez zuen gehiago hurbiltzea nahi. Bainujantzia besterik ez izateak

soinean babesgabetasun sentsazio deserosoa sortzen zion, eta gogoratzen da lehenbailehen alde egin nahi zuela. Bera zen uretatik zetorrena, ezin beraz bainura zihoala esanez ihes egin. Ez da gogoratzen azkenean nola banandu ziren. Ez zuen osaba irakasle izan nahi eta horregatik joan zen Andaluziara ikastera. Horretaz oso ondo gogoratzen da.

*I hate it when they say
I'm aging gracefully
I fight it every day
I guess they never see
I don't like this at all*

Elixabete identifikatu egiten da hitzekin eta Harrisen ahotsak bihotza berotzen dio. Amaz gogoratu da, bera baino zaharragoa dela eta presumida oso eta hari ere gertatuko zaiola kantak esaten duen hori. Laster altxatuko da ama ohetik, esan zion oso goiz jaikitzen dela. Elixabete oheratu egingo da laster. Badaki tarteka behintzat amak irakurtzen duela bere bloga. Esan izan dio. Ismene goitizenaz ematen ditu *likeak*. Ez daki hori amak aitortu zion ala berak igarri zuen. Ez daki itzultzaile automatikoa erabiltzen ikasiko zuen dagoeneko, asmoa behintzat bazuen eta ingelesa ikasten ere hasi zen bere ohiko pelukeriaren ondoko akademian. Oso trebea da ama, beti izan da. Frantsesarekin ondo moldatzen da, mojetan idazten ikasi zuen eta *Paris Match* erregulariki irakurtzen du aspalditik. Elkarrekin entzungo balute kanta, azalduko lioke adierazten duela emakume baten amorrua dotore zahartzen ari dela esaten diotenean,

egunero borrokatzen duela baina ez bide direla besteak kon-
turatzen horretaz eta ez zaiola batere gustatzen eta izenburuak
Eder ginen garai haietan esan nahi duela. Ai, edertasunaren
garai haiek. Alexekin deskubritu zuen Emmylou Harris, maiz
egin zuten dantza eta barre haren kantekin. Horregatik entzu-
ten du orain, gogoratzeko zoriontsu izan zela. Pozten da baina
triste dago. Maitasunak uzten ditu gure barrenean puska go-
torrak, koxkor onak, baina baita zuloak ere, energia xurgatzen
digutenak eta oinazea bakarrik sortzen dutenak. Alexen puska
onak baditu Elixabetek bere baitan, sendotzen dutenak, be-
tetzen dutenak. Mina, zuloa, Alexek alde egin zuenekoa da.
Horretaz ahanztea lortzen duenean, koxkor onak bakarrik sen-
titzen ditu. Country musikak laguntzen dio, kanta honek ez
horrenbeste.

Elkarrekin bizi zirenean (back when we were beautiful,
hain iruditzen zaio aspaldi Elixabeteri), Alexek alde batera eta
bestera eramaten zuen, erakutsi egiten zizkion inguruak be-
reak balira bezala, harrotasunez ikusiz Elixabetek zenbat goza-
tzen zuen, nola esaten zuen ze ederra, ze ondo gauden hemen,
zenbat gustatzen zaidan leku hau. Half Moon Bay-ra ez zuen
Alexek eraman, Elixabetek berak erabaki zuen hara joatea as-
teburu pasa Miramar deitzen zen hotel batera. Alex ezagutu
aurretik Redwood Cityn bizi zenean oraindik, beste zerbaiten
bila zebilela sarean, agertu zitzaion hotelaren iragarkia ordena-
gailuaren pantailan eta klik egin zuen, izenak grazia egin zio-
lako. Miramar, Donostiako bere kalean egon zen zinema areto
hura bezala. Elixabetek tesia aurkeztu zuen urtean itxi zuten
betiko. Miramar hotela ez zen bereziki garestia, ezta aparteko

lekua ere, baina hondartza ondoko herri turistiko polit batean zegoen, Half Moon Bay. Beste zenbait kosta-herri txiki ere ba- zeuden badian, baina honek badia osoaren izena hartu zuen nonbait. Redwood Citytik gertueneko hondartza, San Fran- tziskotik urrutixeago. Halere, Alexi ondo irudituko zitzaion pla- na. Half Moon Bay, ilargi erdiaren badia, Mezza Luna deitzen zen leku batean hartu zuten lehen gaueko afalondoko tragoa. Jazz leuna jotzen ari zen talde bat du gogoan. Elixabete, bere zorionaren moteltasunean, denboratxo bat egon zen kontura- tu gabe tabernaren izena badiaren izenaren italierazko itzul- pen bat zela. Ilargi erdia. Eta hori, lekuei ematen zaien izenez pentsatzen egon zela, autoa hartu eta San Frantziskotik atera zirenetik ia iritsi ziren arte. Ez zuten asko hitz egin. Pasatu egin ote zen kezkatuta zihoan, Alexi lekua kutreegia irudituko ote zitzaion beldurrez. Donostiako hondartza ezagunena ere La Concha deitzeak eskandaluz betetzen zituen bere lankide latinoamerikarrak. Euskaraz esanda ere ez zegoen modurik be- raiei sexuala eta zikina (atzerakoienei) edo sexista (feministei) gertatzen zitzaaien irudia beren adimenetik uxatzeko. Kontxako uhartea handiegia irudituko zaio beti Elixabeteri. Pazifikoko ba- dia haren irekitasunak berriz arnasa ematen zion, nahiz esan- zioten olatu arriskutsuak zeudela, lasterregi iristen zirenak eta ia ur-ertzean bertan handitzen bat-batean pertsonak ezustean harrapatu eta uretara eramanez. *Sneaker waves* deitzen dira. Sneak. Ezkutuan hartu. Ezkutuan hartu eta eraman, kontra- bandoan bezala, medikuak Alex bezala.

IXA IZAN ZEN Elisarentzat triste jartzen zen lehen gizona. Eta bakarra. Egia da ez dituela gizon asko ezagutu gertutik, ez Ixaren aurretik eta ez ondoren. Bere aita ez zen triste jartzen, haserretu egiten zen. Senarra ez zen triste jartzen. Adoregabetu, erori egiten zen, baina ez zen tristura. Kezkak indarra kentzen ziola ematen zuen, baina ez zen tristura. Zer egin ez zekiela, galduta bezala jartzen zen. Elixabetek, hango ikasketak bukatu ondoren, Estatu Batuetan jarraitu nahi zuela adierazi zienean bezala. Hau ez da itzuliko, esan eta eserita gelditu zen luza-roan egongelan, ezer berezirik egin gabe, arrats hartan zuten kontzertu batera joateko prestatu behar izan zuten arte. Joxean eserita egon zen bitartean Elisa sukaldean egon zen afarirako lanak aurreratzen. Orain nazka ematen dio Ixak eragiten zionaz gogoratzeak, baina gazteagoa zenean, Ixa ezagutu zuenean, senarra oraindik ez zitzaionean bizitzan agertu, orduan erakar-garri gertatzen zitzaion, tristura hark xarma ematen zion. Ixa gizon interesgarri bat zen orduan, gero koinatarekin ezkonduko zen poeta sentibera hura. Tristuraz idatzi zituen poema batzuk irakurri ditu orain ez asko Elisak eta higuigarri gertatzen zaizkio, damu delako Elisa, bere buruarekin haserre ez diolako barkatzen garai hartako poesien segadan erori izana. Batzuen tristura nolabaiteko harrokeria dela iruditzen zaio orain, munduak beste tratu bat, hobe, ematea merezi duela uste duenaren sentimendua. Horregatik bera triste jartzen denean txorakerietan dabilela esanarazten dio bere baitako zerbaiti, ez duela triste egoteko eskubiderik, badela munduan benetako zorigaitza pairatzen duen jendea. Normalean, halakoetan ile-apaindegian ordua eskatu edo erosketaren bat egitera joaten da, gogorik ez

badu ere. Batez ere kontua da triste egoteaz ez hitz egitea, ez besteri esatea *triste nago* bezalako zarpaillkeriak. Gizon batek, fundamentu pixka bat badu, ezin du halakorik esan, ez bada neska tuntunen bat harrapatzeko. Bera neska tuntuna izan zen eta lotsa ematen dio eta amorrua. Zein sentibera iruditzen zitzaien, zein berezia Ixa. Bidegabekeriak goibeltzen omen zuen. Hori dio poemetan. Herriak pairatzen zuen bidegabekeriak. Zein izan ote zen lizentzia poetikoa, sufrimendu hori, herriaren sufrimendu hori tiroka konpondu behar zela erabakitzeko. Hori nahi lioke galdetu koinatuari. Beranduegi da ordea eta bera koldarregi izan da. Ez da ausartu inoiz. Bai, behin, behin ausartu zen, baina ez zen benetako ausardia izan. Xanpaina edan zuelako –aukeran gehiegi– gertatu zen, ez benetan ausartu zelako. Ez zion inoiz lizentzia poetiko horretaz galdetu.

Bada jende mota bat beti antzokian dagoena taula gainean, Elisak pentsatzen du Ixa halakoa zela eta halakoxea izango zela txikitatik. Berak ezagutu zuenetik behintzat halakoa zen, eta gauza horiek ez dira inprobisatzen. Seme bakarra, Donostiako familia burges aberats samar batean jaioa, eskuindarrak, frankistak ez baziren, ez behintzat Frankoren kontrakoak. Nauticoko bazkideak. Zenbat kalte egin dezakeen besteak baino gehiago izan nahi duenak, bere burua beste pertsonen gainetik jartzen duenak. Pentsa Frankok ere zenbat oinaze ekarri zuen. Gizon bakar batek zenbaterainoko hondamena. Zalantza izpirik gabeko behar batek bultzatuta bere burua besteen gainetik jarri nahi duen lagun bakar batek zer-nolako indar suntsitzaileria. Ahal duen neurri handienez, iristen denerainoko gaizkia egingo du. Inguruko jende otzanak ematen dion ahalmen

guztiarekin, egokitzen zaizkion aukerak oso-osorik txarrerako erabiliko ditu, ez oharkabean, baina bai nolabait itsututa, bere buruarekiko lilura egoskor batek mozkortuta.

Joxeanek ez zuen trikimailu poetikorik erabili bera harrapatzeko. Joxeanek maitasunez trata zezaten behar zuen, eta berak ere halaxe jokatzeko zuen besterekin. Iruditzen zaio Elixabete ere halakoxea dela. Joxeanek ez zuen beharbada inoiz erabat harrapatu, baina gozo egon zen urte luzez haren sendotasunean murgilduta, oin hartuta, babestuta. Gogoan ditu Joxeanen kaltzetinak, urdinak, beltzak eta granateak, gogoan du lehen aldiz tolestu zituenean Joxean hilda zegoelarik. Lehen aldia zen kaltzetinak tolesten zituena Joxeani tolesten ez zizkiolarik, ez zen ari Joxeani tolesten kaltzetinak, Joxean hilda zegoen eta ez zituen berriro jarriko. Pijama ere ez. Kontu handiz tolestu zituen, beti bezala. Eta gogoan du, berdin (memorian disekatuta bezala), Joxean hil ondoren inork deitu ez zuen lehenengo eguna. Egun osoan inortxok ere ez. Ordura arte egunero hartzen zuen deiren bat. Hasieran asko, gehiegi. Arratsalderen batean ez zuen telefonoa hartu. Deitu zutenei esan zien, hurrengo hitz egin zutenean, atera egiten zela paseatzera. Ez zen mugikorrik ibiltzen oraindik. Etxean ez zuten erantzungailurik jarri, Elixabeteren iritziaren kontra. Gero benetan hasi zen paseatzera ateratzen. Egun batean ez zen telefono deirik egon, goizeko erosketak egin ondoren etxetik irten ez bazen ere. Bazekien ez zuela inork deitu. Aurrerago normal bihurtu zen telefonoaren isiltasuna. Gertueneko ezagun gutxi batzuek ikasi egin zituzten bere ordutegiak eta, nahi izanez gero, afal orduan deitzen zioten edo topo egiten zuten berarekin pasieran edo, bestela, elizatik irtetean, iluntzeko ofizioetara

joaten zenean ezezagunen artean esertzera. Zer moduz zoaz, Elisa. Denborak laguntzen duela. Aurrera segi behar dela.

EZEZAGUNEN ARTEAN ESERTZEKO beharra sentitzen duenean, Elixabete zinera joaten da eta berak ere batzuetan ezagunen batekin topo egiten du, gero eta gutxiagorekin halere, gero eta gehiago ikusten dituztelako filmak etxean denek. Badaki ama ez dela zinera joaten aita hil zenetik. Jendeak zer pentsatuko duen ere, emakume zahar bat bakarrik zinean... eta, dena den, ez omen du denborarik soberan izaten. Lehen gurasoak sarri joan ohi ziren zinera. Hortik etorriko zaio zaletasuna. Bera txikitik asko eramaten zuten zinera, eta lehengusuekin ere joaten zen igandeetan. Bakarrik joatearen abantaila da irtetea ez dela filma inorekin komentatu behar, eta hori oso beharrezko gertatzen zaio Elixabeteri film batzuekin bereziki. Alexek alde egin baino lehenago ostiralero joaten ziren campuseko zineforume-ra eta lagun feministekin komentatzen zuten gero ikusitakoa. Nahiago du orain bezala taldean komentatu beharrik ez izan, baina nahiago luke Alex oraindik ondoan balu, etxean, haserretzeko balitz ere. Zergatik joan ote zen Iowako biltzar hartara, zergatik ezagutu behar izan zuen orain bere senarra dena, bi umeren aita alarguna, hain ondo bazeuden biak elkarrekin Kalifornian.

JOXEANEN ELIZKIZUNAREN ONDORENGO egunetan gehien deitzen zuena koinata zen, Elene. Elisak beti ematen zizkion eskerrak

eta esaten zion aurreratu egin zela, berak ere anaia galdu zuela eta merezi zuela deia. Ez da berdin. Nik Kepa daukat nirekin. Eta seme-alabak. Eta bilobak. Ez zion esaten hitzez hitz *zu bakarrik zaude*. Ia. Elisaren beldurrik handiena orduan, halaz ere, Ixak deitzea zen, elizkizunaren ondoren etxera lagundu zute-nean esan baitzion: Badakizu non naukazun, ez koinatu bezala bakarrik edo ez koinatu bezala hain zuzen.

Joxearen heriotzaren inguruko egunetatik gogoan gelditu zaion beste gauza bat da ETAk bi pertsona zeuzkala bahituta eta haien emazteez asko pentsatzen zuela berak alargundu zenean.

Orain Ixa ere hilda dago. Ez dago inor bahiturik, ez dago bahituen emazterik. Koinatak pentsatuko al du hemendik aurrera beste alargunez, tiroz hildakoen alargunez. Ez, ziu-rrenik ez.

Hiru hitz gelditu dira azpimarratuta katiluaren ondoko paper-blokeko zerrendan, gosalduta bitartean ezkerrekin marraztu dituen lerro uhindu okerren bidez:

Elixabeteri

Eleneri

Pelukerian